# Liburuak andanaka

## Haur literatura sailekoak



**Dokumentuaren egilea :**
Ikas euskal pedagogia zerbitzua - Dokumentaziogunea

iKAS
euskal pedagogia zerbitzua
**Dokumentaziogunea**

# Argitaldariak / Bildumak

Aizkorri
- Hegan
- Mendi sorgindua

Alberdania
- Albumak koloretan
- Kalamatxin

Banaka
- Terexa eta galtzagorri

Bruno
- Zia boga

Desclee
- Haur literatura
- Ipotxak eta erraldoiak
- Mikoleta

Elkar
- Batela
- Eta zer ?
- Kuku
- Lamia
- Miru
- Pirritx eta porrotx
- Rita
- Xaguxar

Erein
- Auskalo
- Igela
- Igelio igela
- Iholdi
- Maleta magikoa
- Mandolina
- Matriuska
- Siberia treneko ipuinak

Gero
- Ekilore

Giltza
- Tukan

Ibaizabal
- Matxinsalto
- Paper txoriak sail gorria
- Paper txoriak sail urdina

Pamiela
- Haur literatura
- Tamaina ttikia

SM
- Baporea sail laranja

Ttarttalo
- Betiko klasikoak

Txalaparta
- Axuri beltza

## ✔ AIZKORRI

### ● Hegan

#### ➢ Ainhoa eta marrazoa

Ainhoa eta marrazoa [testu inprimatua] / Lartategi, Josu, Egilea. - Bilbo : Aizkorri, 2005. - 44 or.; 21 cm. - (Hegan) .

ISBN 978-84-8263-113-4 : 5,95 €.

**Laburpena** : Ainhoa txikia da. Kostaldeko herrixka polit batean bizi da. Haren begien aurrean itsasoa izaten da beti. Urak, olatuak eta arrantzaleen txalupak ere hortxe izaten dira. Bat-batean, ordea, elementu berri bat agertu da itsasoan. Herrixkaren ondoko kaian biztanle berria dago. Eta biztanle handi eta erraldoi hori Ainhoaren laguna da.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 12**

## ➢ Balea

Balea [testu inprimatua] / Lartategi, Josu, Egilea. - Bilbo : Aizkorri, 1999. - 45 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Hegan) .




ISBN 978-84-8263-105-9.

**Laburpena** : Baleak, planeta honetako animalia handienak, arriskuan daude. Azkenak irla bakarti batean bizi dira. Bertan jolastu eta amets egiten dute, bertan maitatu eta atseden hartu. Arriskua, hala ere, oso hurbil dute, arrantzaleak haien bila doazelako... eta gizakien odol-egarriak ez du mugarik. Baleek ondo dakite hori; horregatik, azken bidaiari ekingo diote. Urrunera joango dira, oso urrunera.
Istorio honetan Haundi eta Pott izeneko baleak ezagutuko dituzu: belea zaharra eta balekumea. Horiek izango dira protagonista, kapitain krudel batekin batera. Baleak eta gizakiak aurrez aurre...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 18**

## ● Mendi sorgindua

### ➢ Armiarma zuhaitzetan

Armiarma zuhaitzean [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Estevez, Ivan, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 2004. - 56 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-347-3.

**Laburpena** : Poema liburu honetan estilo desberdinetako poemak aurki daitezke ; hala nola : Itsasontzia kulunkan itsasoa kulunkari. Eta amaren bihotz samurra umearentzat opari Itsasontzia kulunkan itsasoa kulunkari.

**Indexazio hamartarra** : 899.921 (Euskarazko literatura - Poesia)

**Generoa :** Olerki bilduma

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** LE-1288/04

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Elurrezko pilotak

Elurrezko pilotak [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Alonso, Aitziber, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 2006. - 45 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .

ISBN 978-84-8263-359-6 : 6,50 €.

**Laburpena** : Ikazkin bat Olentzero izatera nola iristen den kontatzen da, ipuin mitologiko baten antzera.Urrun bizitzeak sortzen dituen kezkak aipatzen dira. Ilustrazioak oso lagungarriak suertatzen dira.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** LE-1267/06




**Ale kopurua : 15**

## ➢ Gaspar eta zuhaitzak

Gaspar eta zuhaitzak [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Lucas, Belen, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 2002. - 55 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-336-7 : 7,50 €.

**Laburpena** : Gasparrek errege izena du. Zortzi urte ditu, eta mila bihotz eta andregai bi, eta panpina birbirramona bat, eta txokolatezko domina bat. Ez zaio terapia gustatzen, Don Inorrez-en beldur izaten da, eta arazo handi bat dauka, sabelean zuhaitzekin!

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Hau gozoa !

Hau gozoa ! [testu inprimatua] / Santisteban, Karlos, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 1998. - 55 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-312-1.

**Laburpena** : Hegoi gozozale arnorratua da benetan. Txikitan, negar egiten zuenean, txupeteari azukrea, marmelada, eztia edo beste gozagarriren bat ipini behar zioten gurasoek isilduko bazen.
Nola ez, berehala txantxarrak bere hortzen jaun eta jabe izango dira eta hortzordeak jarri behar. Zenbat hortzorde, hainbat abentura biziko du Hegoik.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Luzi, Fer !




Luzi, Fer ! [testu inprimatua] / Suarez, Jon, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 2002. - 44 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .

ISBN 978-84-8263-331-2 : 7,00 .

**Laburpena** : Luziak sei urte ditu. Fernandok ere bai. Fernando ilehoria da. Luziak horia du ilea. Luziak oreztak ditu sudurraren bi aldeetara. Fernandok sudurraren alde banatan ditu oreztak. Fernandok txaplata darama ezker begian. Luziak ez. Luziak eskuineko begian darama txaplata. Luziak eserita egiten du txiza. Fernandok, berriz, zutik...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Mundua pintatu zuen haurra

Mundua pintatu zuen haurra [testu inprimatua] / Amo, Javier del, Egilea; Cañas Cortazar, Alicia, Irudigilea; Esnal, Jone, Itzultzailea. - Bilbo : Aizkorri, 1997. - 89 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-306-0 : 7,00 €.

**Laburpena** : Bonba lodi bat erori zen lurrean eta eguzkia, ipar izarra, gainerako izarrak, ura, animaliak eta landareak suntsitu zituen. Errege-erreginak eta herrialdeetako agintariak astakiloak izan zirela konturatu ziren bonba lehertzen utzi zutelako eta irtenbideren bat bilatu behar izan zuten. Xabierrek, Hiru Pataten Haranean bizi zen haur magoak soilik konpon zezakeen arazo hura. Nola, ordea?, galdetuko duzue. Bere pintzelaz margotuz eta helduei egiten dutenarekin kontu gehiago izan behar dutela erakutsiz.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Oihan ttiki baina txukun batean




Oihan ttiki baina txukun batean [testu inprimatua] / Linazasoro, Karlos, Egilea; Alonso, Luis, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 1999. - 41 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .

ISBN 978-84-8263-316-9.

**Laburpena** : Oihan ttiki batean animalia guztiak harmonian bizi ziren; edo, agian ez... Animalia guztien berri izango badugu ere, Jom tximino bihurrikaria, Stanislaw kamalehoi lotsatia, Caruso kilkerra, Milos jirafa eta Lafcadio herensugea izango dira ipuin hauen protagonistak.

**Edukia** : Jom tximino bihurrikaria

Stanislaw kameloi lotsatia

Caruso kilkerra

Milos jirafa eta Litto Militto alkatea

Lafcadio trsite dago

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 5**

## ➢ Ortzadarraren kantua

Ortzadarraren kantua [testu inprimatua] / Suarez, Jon, Egilea; Odriozola, Elena, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 1999. - 47 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-320-6.

**Laburpena** : Txorok arazo larri bat du: nagusitan zer izango den jakin nahi du, ezin baina asmatu. Iritzia aldatu du behin eta berriz. Irakasle izatea gustatuko litzaioke, baina kamiolari izatea ere ez legoke gaizki, edo dendari bestela...
Asmatuko al du azkenean? Ea Txiru txirulak zer kantatzen digun.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ➢ Paperezko gizontxoa




Paperezko gizontxoa [testu inprimatua] / Alonso, Fernando, Egilea; Alonso, Fernando, Irudigilea; Aristondo, Ainhoa, Itzultzailea. - Bilbo : Aizkorri, 1997. - 57 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .

ISBN 978-84-8263-303-9.

**Laburpena** : Neskatxa aspertu egiten zen etxean. Betiko jostailuek ez zuten entretenitzen. Baina egun batean egunkari paperezko lagun bat imajinatu, asmatu eta egin zuen. Paperrezko gizontxoak eta neskatxak bizitza, bertan dauden gauza onak eta txarrak eta giza ekintzak elkartasunaren begiez begiratuz besteei itxaropena eta poza nola transmititzen zaien ikasi zuten.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** El hombrecillo de papel

**Ale kopurua : 11**

## ➢ Roke izeneko komuna

Roke izeneko komuna [testu inprimatua] / Dueso, Antton, Egilea; Odriozola, Elena, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 2002. - 68 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-332-9.

**Laburpena** : Uda hartan ez zegoen hondartzarik ez igerilekurik Nikolasentzat. Ez jairik, ez lagunik. Uda hartan, Nikolas aitonaren baserrian zegoen asper-asper eginda baina egun batean, ganbara igo zen eta han hitz egiten zuen komunontzi bat topatu zuen, Roke izeneko komuna.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Txakur berde baten istorioa

Txakur berde baten istorioa [testu inprimatua] / Calleja, Seve, Egilea; Egillor, Juan Carlos, Irudigilea. - Bilbo : Aizkorri, 2001. - 45 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .




ISBN 978-84-8263-330-5 : 7,00 €.

**Laburpena** : Lehen Marta pozik bizi zen gurasoekin eta Max txakurrarekin hiritik kanpoko etxe batean.Amak hirian lan egiten zuen eta aitak, tropeta jotzeaz gain, etxeko lanen ardura zuen. Baina hazi eta eskolan hasi zen eta gurasoen harremanak okerrera egin zuen. Gurasoek elkarri arduragabekeria egozten zioten eta Martak, hau ekiditearren, beregain hartzen zituen ardura horiek: etxeko lanak egin, Max zaindu, gurasoak laudoriotu,... Egun Martak bi arazo ditu: aita eta ama. Bi Marta izatera behartua dago; astegunetan aitaren Marta da eta lorategiko Toto, harrizko ipotxa du lagun. Asteburuetan aldiz, amaren Tamar da eta Puppy, lehen Max zena, du lagun. Martaren ilusioa gurasoak berriro elkarrekin ikustea da eta hau lortu nahian buruari buelta asko emango dizkio. Marta bere adineko lagunentzat neska bitxia izango da, ilusio honen atzetik ibiltzeak ez baitio bere adinekoen ohiturak mantentzen utziko.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

# ✔ ALBERDANIA

## ● Albumak koloretan

### ➢ Bataklon eta karamelo sorgina




Bataklon eta karamelo sorgina [testu inprimatua] / Caro, Sylvet, Egilea; Armspach, Marko, Irudigilea; Totorika, Kattalin, Itzultzailea. - Irun : Alberdania, 2008. - 24 or.: kol. ir.; 23 x 25 cm. - (Albumak koloretan) .

ISBN 978-84-986803-1-7 : 14,00 €.

**Laburpena** : Euskal Herriaren bihotzean, haranen artean eta ur xirripa artean, Herri Behereko biztanleak pozik bizi dira, bake-bakean. Baina, gaur, ez da bakerik gehiago, amorruz astintzen dituzte bertakoek pankartak eta banderatxoak. Biztanle guztiek errepikatzen dute batera : "Aski da! Hortz txantxartuez aski dugu".
- Zer da iskanbila hau ?- galdetzen du Bataklonek.
Herri Beherera bakea berriz ekarriko duela erabakia harturik, detektibez mozorrotzen da. Harrigarria izango da ikasiko duena.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ● Kalamatxin

### ➢ Maisu berria




Maisu berria : Grigor eta erlearen ipuinak [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - Irun : Alberdania, 2000. - 58 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Kalamatxin; 7) .

ISBN 978-84-955890-1-9 : 8,50 €.

**Laburpena** : Maisu berria, Grigor eta erlearen ipuinen bosgarren liburua da. Beste pertsonaia ezagun batzuk ere ageri dira, koadrila osatuz: Arranke, Ainhoa eta abar. Ikasturtearen hasieran, maisu berria dute eskolan, biboteduna, zakarra; harengandik ihesi, gelako haurrek abentura harrigarri bat biziko dute, beste mundu batera sarturik, Alizia lurralde miresgarrian barneratu zen bezala, Gulliver Liliput lurraldera iritsi zen bezala. Auzoan, jendea larri dago, haurrak desagertu direla eta.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 14**

# ✔ BANAKA

## ● Teresa eta Galtzagorri

### ➢ Elkarrekin betiko

Elkarrekin betiko [testu inprimatua] / Intxaurraga, Agurtzane, Egilea; Pelaez, Patxi, Irudigilea. - Banaka, 2009. - 32 or.: kol. ir.; 23 x 24 cm. - (Teresa eta Galtzagorri; 2) .




ISBN 978-84-936623-8-7 : 12,00 €.

**Laburpena** : Neba bat izango duzu, esan dio amak Teresari. Denak aztoratu ditu berriak. Galtzagorrik etxetik alde egin beharko ote du ? Teresa ez dago prest horretarako ! Galtzagorri da bere lagunik onena, inork ez ditu bananduko !

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ✔ BRUNO

### ● Zia Boga

#### ➢ Euri-ttantta

Euri-ttantta [testu inprimatua] / Gomez, Alfredo, Egilea; Moreno, Victor, Irudigilea; Goitia, Iñaki, Itzultzailea. - Bilbo : Bruño, 1996. - 59 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Zia Boga; 24) .




ISBN 978-84-216-2887-4.

**Laburpena** : Batzuetan hodei ilunek estaltzen dute zerua. Tximistak ikusten dira urrutian, bai eta trumoiak entzun ere. Jende guztiak pentsatzen du orduan : " A zelako zaparrada bota behar duen ! " Baina ez, lau tanta baino ez dira jausten. Lau tanta horiexen istorioa kontatzen du liburu honek. Liburu batzuetan zu bezalako neskato edo mutiko bat izaten da protagonista. Beste batzuetan, ordea, tzakurra, zuhaitza, paperezko barkua, mendia edo dena delakoa izan daiteke. Liburu honen egileak euri-ttantta txiki bat, egin du ipuin honetako protagonista.

**Indexazio hamartarra** : 860 (Gaztelaniazko literatura)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ➢ Argi superdetektibea

Argi superdetektibea [testu inprimatua] / Loon, Paul van, Egilea; Garcia, Fatima, Irudigilea; Solozabal, Maite, Itzultzailea. - Bilbo : Bruño, 1998. - 91 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Zia Boga; 30) .

ISBN 978-84-216-3179-9.




**Laburpena** : Argi Etxaluze du izena, baina Argi Muturluze deitzen dio jende guztiak. Zerbait galtzen bada, Argik aurkituko du. Hori bai, bi txokolatinen truke. Den-dena daki lapurretez, bahiketez, galdutako jostailuez... Arazoren bat baduzu ? Deitu Argiri, gau eta egun, beti erne baitago. Argik ez dio inoiz erlojuari erreparatzen.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Schildpad ontvoerd

**Ale kopurua : 15**

## ✔ DESCLEE

### ● Haur literatura

#### ➢ Zu nirean, Ni zurean




Zu nirean, Ni zurean [testu inprimatua] / Calleja, Seve, Egilea; Garcia, Marije, Irudigilea; Auzmendi, Lurdes, Itzultzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2008. - 62 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Haur literatura) .

ISBN 978-84-330-2249-3 : 7,00 €.

**Laburpena** : Baibai neska altu-altua eta oso fina da. Hori, ordea, txiki-txikia eta zarpaila. Biak ikasgela berean daude eta lagunak egiten dira. Poz-pozik daude hain desberdinak izateagatik. Beren etxeak ezagutzera elkar gonbidatzen dute eta bere familien artean alde hain handia egotea dibertigarri iruditzen zaie.
Seve Callejak istorio honen bidez, kultura eta bizimodu ezberdinen artean berdintasuna eta begirunea, posible direla jakinarazi nahi digu.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa** : Haur literatura

**Publikoa** : 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 17**

## ● Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja

### ➢ Ariadna eta hankapalo

Ariadna eta hankapalo [testu inprimatua] / Tellaetxe, Jose Antonio, Egilea; Tellaetxe, Jose Antonio, Irudigilea; Montorio, Bego, Itzultzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2001. - 52 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .




ISBN 978-84-330-1587-7.

**Laburpena** : Neskatila baten oihua. entzun zen : aaaaaa !
Eta piraten untzian, kainoietara joan ziren denak arrapaladan. Kapelak hartu, pistolak eta labanak eskuratu, eta erratzaz armaturik abiatu zenik ere egon zen. Baten bat erasoka zetorkiela pentsatu zuten. Baina, neskarekin batera Hankapalo pirata zegoen. Hankapalo, Kizki bera kinka larrian jarri zuen kapitaina. Hankapalo handia, zazpi itsasoetako mamua.
Kantak zionez, Hankapalo, pirata gaiztoa, okela gordina jan eta itsasoko hura edaten zuena, lalarala.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ➢ Azken giltza

Azken giltza [testu inprimatua] / Ruiz, Ruben, Egilea; Morente, Enrique, Irudigilea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2003. - 62 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .




ISBN 978-84-330-1786-4 : 5,00 €.

**Laburpena** : Xabierren amak dio : "Ezagutzen ez dena, ezin da maitatu". Agian, horregatik ez ditu Xabierrek futbolariak eta kantariak maite. Jolas orduan Xabier bakarrik egon ohi da. Bere klaseko mutilak baloiaren atzetik dabiltza, kilometroak egiten eta zapatilak zulatzen. Bestalde, Xabierren klaseko neskak eskolako frontoi atzean dabiltza, koreografiak asmatzen eta zapatilak zulatzen. Xabierrek jolas ordua txotxongiloak egiten ematen du –gero amak egunero-egunero birpasatzen dizkio–. Baina, egun batean, Xabierrek argi eta garbi entzun zuen Alaznek Olatzi esaten ziola aurreko arratsaldean txakurra paseatzen ari zela giltzak galdu zituela. Xabierrek gauza arraro bat sumatu zuen. Alazneren giltzak aurkitzeko beharra sentitu zuen. Normalean, besteen gauzek ez zuten gehiegi arduratzen, eta horregatik harritu zuen sentimendu hark.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Ez gara berdinak

Ez gara berdinak, baina berdin da [testu inprimatua] / Calleja, Seve, Egilea; Calleja, Aranzazu, Irudigilea; Auzmendi, Lurdes, Itzultzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2002. - 64 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .




ISBN 978-84-330-1702-4 : 5,00 €.

**Laburpena** : Ikasturte berria: Ana eskolara itzuli da eta bertan, gelan betiko lagunekin taldea osatu partez, iraskasleak beste lagun batzurekin jarri du. LAGUNAK izena osatzen dute talde honetako ikasleek, Anarekin batera Ghanako Aseye, Hungariako Lian, Brasilgo Noemí, Txinako Guang eta Marokoko Khaled daudelako. Ikasle horiek ez dira Anaren berdinak, eta horregatik anaiarekin zenbait burruka egin behar baditu ere, neska oso gustura dago laguntxo berriekin.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Fermintxok ez du gezurrik esaten

Fermintxok ez du gezurrik esaten [testu inprimatua] / Dueso, Antton, Egilea; Dueso, Antton, Irudigilea; Elustondo, Miel Anjel, Itzultzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2007. - 58 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak) .




ISBN 978-84-330-2165-6 : 7,00 €.

**Laburpena** : - Gezurrak, gezurrak, gezurrak! Ikasgelan gezurretan, etxean gezurretan, nonahi eta beti gezurretan ! -dio aitak.

- Zuk ez al dakizu gezur esatea oso gauza itsusia dela ? -dio amak- , ez dago gezurteroa baino txarragorik !

- Gezurrik ez duzula berriz esango agintzen al diguzu ?

- Agintzen dizuet. Inoiz ez dut berriz gezurrik esango ! Zartaginetik ihes egin duen oilaskoa bezala sentitzen da mutikoa.

**Indexazio hamartarra** : 860 (Gaztelaniazko literatura)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Mundua sagarrean

Mundua sagarrean [testu inprimatua] / Otxoa, Julia, Egilea; Otxoa, Julia|, Irudigilea; Suarez, Jon, Itzultzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 1998. - 37 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .




ISBN 978-84-330-1310-1.

**Laburpena** : Fonfolianondo herrialdean errege bat izan zen apeta bitxi bat zuena ; zerarik xelebre eta arraroenak jauregira eramateko ohitura alegia. Gainezka zituen gure errege xelebreak gela eta ganbarak, bete-beteak, hainbeste ezen jauregiko tximinietatik milaka tramankulu arraro irten ziren gau eta egun. Baina hainbeste gauza bitxi edukita ere, erregea ez zen zoriontsu. Alderantziz, oso goibel bizi zen.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** El mundo en una manzana

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Saiku Detektibea gozoki-lapurren bila

Saiku Detektibea gozoki-lapurren bila [testu inprimatua] / Ibarra, Arantza, Egilea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2007. - 58 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak) .




ISBN 978-84-330-2155-7 : 7,00 €.

**Laburpena** : Mialo irlan mota guztietako animali, landare eta izaki magikoak bizi dira. Denak lan, jolastu eta elkarri laguntzen diote.
Baina norbaitek gaiztokeriaren bat egiten duenean, irlako detektibeari deitzen diote. Saiku barraskiloa da gure detektibea.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Sator jator jauna

Sator jator jauna [testu inprimatua] / Calleja, Seve, Egilea; Dominguez, Angel, Irudigilea; Monasterio, Xabier, Egokitzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2001. - 64 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .




ISBN 978-84-330-1588-4 : 5,40 €.

**Laburpena** : Sator Jator Jaunak gaur bere urtebetetze festa ospatzen du. Saturtxo Satortxoa bere loba maitea festa horretara gonbidatu du. Harako bidean Saturtxo Satortxoak lagun mordoxka bat topatzen du: Katalin Katagorria, Sagu Magua, Sabiño Kirikiñoa, Enriketa Tximeleta...

Eta festara elkarrekin joatea erabakitzen dute, baina hara heldu baino lehen, hainbat oztopo gainditu beharko dituzte han eta hemen.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ➢ Tartalo, Mari eta herensugea

Tartalo, Mari eta herensugea [testu inprimatua] / Irusta, Antton, Egilea; Morente, Enrique, Irudigilea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2007. - 63 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak) .




ISBN 978-84-330-2156-4 : 7,00 €.

**Laburpena** : Ipuinak, gizon-emakumeen bidelagun izan dira beti, denboran eta kulturetan zehar. Ipuinak funtzio eta esanahi ugari izan du, kultura desberdinen arabera: irakasbide, jolasbide, mito... denetik du.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Toto eta Otsoto

Toto eta Otsoto [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Erostarbe, Javier, Irudigilea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 2003. - 62 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .




ISBN 978-84-330-1783-3.

**Laburpena** : Elurrak negu beltza zuritu zuen batean, Otsoto otsoa menditik jaitsi eta herrira hurbildu zen gosea asetzeko asmotan. Negu gogorra zen urte hartakoa, eta janaria urri mendian. Harrapakin eskasi handia eta sabelak gur-gur egiten zion Otsotori. Otsoto bizi zen mendian garai batean baziren oreinak eta altzeak, baina gizakiaren eraginez, gutxitzen joan ziren.
Askotan haratustela ere jango, baina hura ere falta, ordea.
Horregatik, Otsoto gizakiarengana zihoan janari bila. Mendian ehizarik ezean, etxabereak ziren Otsotoren salbazio bakarra. Ez zuen lehenengo aldia herrirantz jaisten zena. Ederki ezagutzen zituen herriko baserriak eta etxaldeak. Bazekien non zegoen janari erraza...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

- **Mikoleta**

  - **Zazpikotea sagardotegian**

Zazpikotea sagardotegian [testu inprimatua] / Panteragorri, Clousseau, Egilea; Lartategi, Josu, Itzultzailea. - Bilbo : Desclée de Brouwer, 1998. - 56 or.; 19 cm. - (Mikoleta; 14) .




ISBN 978-84-330-1321-7.

**Laburpena** : Zazpikotearen istorio berri honetan sagardotegi batera sartuko gara. Clousseau Panteragorri irakasleak gorriak ikusiko ditu bere zazpi ikasleak kontrolatzeko.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** SS-899/98

**Ale kopurua : 15**

## ✔ ELKAR

### ● Batela

#### ➢ Sugegorria

Sugegorria [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2004. - 32 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Batela; 7) .

ISBN 978-84-978314-7-5.

**Laburpena** : Kok izeneko sugegorri bat zahartu egin zen, sugegorri zaharretan zaharrena baino zaharrago, eta bere bi hortz gaiztoak erori egin zitzaizkion ; bata uzea zuen ; bestea, motzagoa.

- Zer gertatu zait ? -galdetzen zion bere buruari.

Sugegorrien artean inori ez zitzaion halakorik gertatu inoiz. Sugegorriek ez zekiten zer zen hortzak galtzea...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 15**

## ● Eta zer ?

### ➢ Nire aita etxekoandrea da, eta zer ?




Nire aita etxekoandrea da, eta zer ? [testu inprimatua] / Ugidos, Silvia, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea. - 2. arg. - Donostia : Elkarlanean, 2001. - 30 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Eta zer ?; 4) .

ISBN 978-84-8331-652-8 : 7,25 ???.

**Laburpena** : Lucilaren aita ez da irakaslea, ez da arotza, ez da taxista... Lucilaren aita etxekoandrea da. Badaki tarta goxoak egiten, badaki arropak garbitu, zabaldu eta lisatzen. Baina batez ere bere ingurukoak zorintsu egiten daki, ipuinak kontatzen, dantzan, bihurrikeriak egiten... eta bere seme-alabei eskolako lanetan laguntzen daki. Oso pozik dago Lucila bere aitarekin. Hasieran bai, baina orain Lucila ez da lotsatzen bere aita etxekoandrea dela lagunei esaten.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Mio padre ye ama de casa

**Ale kopurua : 14**

## ➢ Betaurrekoak ditut, eta zer ?

Betaurrekoak ditut, eta zer ? [testu inprimatua] / Urkiza, Ana, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2001. - 30 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Eta zer ?; 8) .




ISBN 978-84-8331-785-3 : 7,10 €.

**Laburpena** : Liburu honetako protagonistak, neskatila batek, arazo bat baino gehiago izan zituen bere betaurrekoak zirela eta ez zirela. Baina gaur egun oso gustura sentitzen da bere betaurrekoekin.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Arreba txiki bat badut, eta zer ?

Arreba txiki bat dut, eta zer ? [testu inprimatua] / Olaizola, Jesus Mari "Txiliku", Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2002. - 30 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Eta zer ?; 9) .

ISBN 978-84-8331-831-7 : 7,25 €.

**Laburpena** : Handiak eta txikiak, berritsuak eta lotsatiak, gizenak eta argalak... pertsona guztiok ez gara berdinak. Eta zer ? Liburu hau ere desberdina da, horrexegatik da polita. Baietz gustatu !

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 15**

## ➢ Ez naiz ilehoria, eta zer ?

Ez naiz ilehoria, eta zer ? [testu inprimatua] / Uribe, Kirmen, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2004. - 30 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Eta zer ?; 12) .




ISBN 978-84-978315-4-3 : 7,25 €.

**Laburpena** : Amirak ilehoria izan nahi du, filmetako aktoreen moduan. Izebarekin astero joaten zen zinemara Europara etorri aurretik. Gero, zinematik atera eta Europara begira jartzen ziren biak itsasertzetik. Orain itsasoaren beste aldetik idazten dizkio izebari gutunak.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Alaba adoptatua naiz, eta zer ?

Alaba adoptatua naiz, eta zer ? [testu inprimatua] / Neira Cruz, Xosé A., Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2004. - 30 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Eta zer ?; 13) .




ISBN 978-84-978314-6-8 : 7,25 €.

**Laburpena** : Andereñoak familiako zuhaitz genealogikoa egiteko esan die ikaslei. Lu neskatilak, ordea, arazo bat du, berak dena bikoizturik baitauka. Bi aita ditu, bi ama, lau aitona, lau amona...

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Eu som adoptada ¿e que?

**Ale kopurua : 15**

- **Kuku**

  - **Amona bizikletan**

Amona bizikletan [testu inprimatua] / Ormazabal, Joxantonio, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2001. - 48 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 7) .




ISBN 978-84-8331-705-1 : 8,25 €.

**Laburpena** : Badira bost urte aitona hil zela, baina amonari ametsetan azaltzen zaio. Izugarrizko planak egiten dituzte bien artean. Baina dena ez da amets hutsean geratzen, plan horiek aurrera eramaten saiatzen dira biak. Ez da erraza, ordea, hildako aitona oraindik munduan dabilen amonarekin elkartzea. Horixe da ipuin honen gakoa. Egile onen liburu gehienetan bezala, umorerik ez falta ipuin honetan ere. Titulotik hasi eta azken punturaino testu erakargarri eta fina aurkituko du irakurleak bertan.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Pako fakirra

Pako fakirra [testu inprimatua] / Etxeberria, Martin, Egilea; Etxeberria, Xabier, Egilea; Belmonte, Jose, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2002. - 49 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 9) .




ISBN 978-84-8331-821-8 : 8,25 €.

**Laburpena** : Pako Fakirra fakirra zen; bizar luzea, durbantea eta gorputz argala zuen, eta iltze gogorretako ohe batean egiten zuen lo. Zirkuan lan egiten zuen Pako Fakirrak, ezpatak, ganibetak eta burdinazko gauzak eztarritik behera irentsiz. Behin, ordea, Pako gaixotu egin zen: "Burdin gehiegi odolean, Pako", esan zion medikuak, eta debekatu egin zion burdinazko trasteak gehiago irenstea. Eta zer egin dezake Fakir batek burdina ezin badu irentsi? Lanbidez aldatzea izan daiteke irtenbide bat, baina esaiozue hori fakir bati??? Horri irtenbidea aurkitzeak buruhauste bat baino gehiago emango dio Pako Fakirrari, baina emango dio, emango dionez.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Bi ipotx gure etxeko sofan

Bi ipotx gure etxeko sofan [testu inprimatua] / Iturbe, Arantxa, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2004. - 39 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Kuku; 14) .




ISBN 978-84-978314-3-7 : 8,45 .

**Laburpena** : Lehengo batean, eskolatik itzuli nintzenean, bi ipotx aurkitu nituen gure etxeko salan... Batek pentsa dezake horrela hasten den ipuin batek irudimentsua behar duela izan, ipuin magikoa behar duela izan... eta halaxe da. Ipotxa aipatzean Edurne Zuriren lagunak etortzen zaizkigu gogora, eta halaxe gertatzen da ipuin honetan ere. Baina ipuin irudimentsuak eta magikoak askotan zerikusi handia dute gure eguneroko bizitzan. Eta familian eragin bitxia izan zuen ipotxen presentziak. Aita, telebista ikusteko, haien erdian eseri eta ez zen han zeudenik ere ohartu. Aita ez baita ezertaz ohartzen albisteak entzuten dituen bitartean, ezta ipotxak agertzen badira ere... Amak afaltzera gonbidatu zituen natural-natural...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Nemesioren elefantea




Nemesioren elefantea [testu inprimatua] / Aristi, Pako, Egilea; Larrea, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2004. - 44 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Kuku; 16) .

ISBN 978-84-978317-9-6 : 8,45 €.

**Laburpena** : Adi Belandia eta inguruko biztanle guztiak: Bart gauean Zirku Italiarretik elefante batek ihes egin du kateak eten eta kaiolako atea birrindu ondoren. Ez da arriskutsua baina domatzaileak kontuz ibiltzeko eskatu du. Ertzainak elefantearen bila dabiltza eta hura ikusi orduko arren dei egiteko eskatu diote biztanle guztiei.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Omar dendaria

Omar dendaria [testu inprimatua] / Cano, Harkaitz, Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2005. - 44 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Kuku; 20) .




ISBN 978-84-978323-7-3 : 8,45€.

**Laburpena** : Omarrek denetik saltzen zuen: ogia, esnea, egunkaria, bizarra mozteko labana finak, oilasko erreak... Harrigarria zen nola sartzen ziren hainbeste gauza hain leku txikian! Izan ere, bere denda gure aitonaren ganbara baino txikiagoa zen. Eta, hala ere, ez zegoen ezer Omarrek ez zeukanik...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 10**

## ➢ Pako fakirra eta Zokomokordo

Pako fakirra eta Zokomokordo [testu inprimatua] / Etxeberria, Xabier, Egilea; Etxeberria, Martin, Egilea; Belmonte, Jose, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2006. - 49 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 26) .




ISBN 978-84-978342-0-9 : 7,60 €.

**Laburpena** : Pako fakirra, bere bigarren abentura liburu honetan, jaioterrira itzuli da, Pakistanera, etxekoak bisitatzera. Herrira iritsi orduko konturatu da, ordea, zerbait oker dabilela: etxetik hasita denak daude gaixo, tripetatik gaixo. Amak argitu dio Pakori errekako ura kutsatuta dagoela eta mendi gainean bizi den Zokomokordo erraldoia omen da egoeraren erantzulea. Pako fakirrak bere gain hartuko du herria ataka estu eta larri horretatik libratzeko balentria.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Nire herriak ostadarrarenkoloreak ditu

Nire herriak ostadarraren koloreak ditu [testu inprimatua] / Urkiza, Ana, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2006. - 43 or.: kol. ir.; 19,00 cm. - (Kuku; 27) .




ISBN 978-84-978341-7-9 : 7,60 €.

**Laburpena** : Marem Bilbon bizi da urte osoan, baina Mutriku da bere jaioterria, eta hor pasatzen ditu bere oporraldiak. Nongoa den galdetzen diotenean, zalantza asko eta handiak izaten ditu Maremek. Behin, Mutrikun zegoela, hiru furgoneta heldu ziren Saturrarango hondartzara, eta Maremek lagun handi bat egin zuen: Jorge. Bizibide ibiltaria du Jorgek eta hari esker gauza asko deskubrituko ditu Maremek; adibidez, lekuak poltsikoetan eramaten direla batzuetan, baina lagunak bihotzean beti.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Mixi marrau

Mixi marrau [testu inprimatua] / Olaizola, Jesus Mari "Txiliku", Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2007. - 41 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 28) .




ISBN 978-84-978339-5-0 : 8,00 €.

**Laburpena** : Maripi andereñoaren gelako umeak oso urduri daude, eta ez da erraza isiltasuna eta bakea lortzea. Horrelakoetan, andereño Maripik hasperen egiten du, besoak zeru aldera altxatu, eta esaten du : "Mixi marrau !". Hitz magikoak entzutearekin batera, haurrak korrika eta presaka ipuinen txokora joaten dira.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Aitona eta amona udalekuetan




Aitona eta amona udalekuetan [testu inprimatua] / Ormazabal, Joxantonio, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2008. - 52 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 32) .

ISBN 978-84-978356-8-8 : 8,25 €.

**Laburpena** : Liburu batean amona bizikletan ibili zen, beste batean aitona parapentean; liburu honetan, berriz, aitona eta amona udalekuetara joango dira beren biloba Libe bisitatzera. A zer nolako komediak hara heltzeko! Etxeko txakurra ere beraiekin eraman zuten. Aitona eta amona ez ziren geldi egon udalekuetan, bilobarekin batera iragan zituzten egunetan. Ez horixe! Trilogiako hirugarren liburu honetan ere umorea eta halako ironia fin bat nagusitzen dira.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ➢ Olatuak loretan

Olatuak loretan [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Eibar, Eidar, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2008. - 45 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 34) .




ISBN 978-84-978363-4-0 : 8,25 €.

**Laburpena** : Bixigu deitzen diote lagunek liburu honetako protagonistari, Markoxi. Ezizen hori bere aurrekoengandik datorkio. Hondartza izkinako harkaitz baten ondoan elkartzen dira ia egunero Markox eta bere lagunak. Han egiten dituzte beren jolasak eta hizketaldiak, eta itsasoan igeri saio ederrak ere bai.
Baina badago misterioren bat Markoxen inguruan, arraro samarrak dira haren jokaera batzuk, eta egunetik egunera arraroagoak gainera. Lagunak ere konturatzen dira horretaz, baina ez dakite oso ondo zer gertatzen zaion mutilari. Azkenean, ordea, liburua irakurri ondoren, dena argi eta garbi geratzen da.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ➢ Printzesa begi-zulo

Printzesa begi-zulo [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Odriozola, Elena, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2009. - 44 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 37) .




ISBN 978-84-978374-8-4 : 8,45 €.

**Laburpena** : Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da, begi-zuloekin, San Borondon uharteko erregearen alaba. Begirada triste nekatua dauka, neguko arratsalde lainotsua bezalakoa.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Martin egon geldi

Martin egon geldi [testu inprimatua] / Bilbao, Leire, Egilea; Gallego, Patxi, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2009. - 42 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Kuku; 38) .




ISBN 978-84-978374-2-2 : 8,45 €.

**Laburpena** : Autotik ez irteteko esan dio amak Martini, bera aireportura sartzen den bitartean, aitonaren bila. Esana txintxo beteko du Martinek, baina hala ere ezin bertan gelditu, tartean sartuko baitira kotxeak, garabiak, ferryak...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ● Lamia

### ➢ Hankak nahi zituen sugea




Hankak nahi zituen sugea [testu inprimatua] / Olo, Akonio d', Egilea; Leizeaga, Joseba, Irudigilea; Pikabea, Jose Ignacio, Itzultzailea. - Donostia : Elkarlanean, 2001. - 26 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Lamia; 7) .

ISBN 978-84-8331-789-1 : 5,25 €.

**Laburpena** : Afrikako ipuin bat. Suge batek hankak izan nahi ditu, eta hor dabil animalia bati eta besteari eskatuz. Lortuko ote ditu hainbeste desio dituen hankak ?

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ● Miru

### ➢ Partxela

Partxela [testu inprimatua] / Landa, Mariasun, Egilea; Lucas, Jesus, Irudigilea. - 7. arg.. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 70 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Miru; 5) .




ISBN 978-84-8331-292-6 : 7,25 €.

**Laburpena** : Kuzki txakurra gaixo dago bere txabolatxoan. Oso gaixotasun berezia dauka. Zer egin hura sendatzeko ? Horretarako ez dago Partxela bezalakorik. Partxela nor den ? Bihotz eta umore oneko emakume erdi-sorgin bat. Haretxek sendatuko du txakurra inork sendatzekotan ; perretxiko negartiaren malkoak eta hondar ale berde batzuk aurkitzen baditu behintzat. Neska-mutiko taldetxo bat prest dauka laguntzeko. Liburua ireki eta abentura honetan murgiltzen den irakurleak ondo pasatuko du. Baietz!

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Ahaletxoa eta sahats negartia

Ahatetxoa eta sahats negartia [testu inprimatua] / Landa, Mariasun, Egilea; Odriozola, Elena, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 1997. - 44 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 16) .




ISBN 978-84-7917-683-9.

**Laburpena** : Ipuin honetako protagonistarik gehienak oso bereziak dira. Ahatetxoak urpekari izan behar duela erabakitzen du jaio eta segituan. Beti negarrez egon ohi den sahatsa barrez eta txaloka hasten da azkenean. Eta parke hartara argazkiak ateratzera joan ziren ezkonberriei gertatu zitzaiena...? Izan ere, irudimenaren, umorearen eta amodioaren parkea zen hura.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Nire belarriak

Nire belarriak [testu inprimatua] / Etxaniz Erle, Xabier, Egilea; Ferreño, Adrian, Irudigilea. - 6. arg.. - Donostia : Elkar, 1997. - 72 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 18)
.




ISBN 978-84-7917-662-4 : 7,10 €.

**Laburpena** : Liburu honetako protagonista beste mutikoen antzekoa zen, Antton zaharraren dendako kristala hautsi zuen arte. Handik aurrera gauza harrigarriak gertatuko zaizkio, abentura batean baino gehiagotan parte hartu beharko du. Protagonistak berak idatzi ditu zuretzat bere abenturatxoak. Irakur itzazu, ondo pasako duzu !

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Euskaldun bat Marten

Euskaldun bat Marten [testu inprimatua] / Zubeldia, Iñaki, Egilea; Redondo, Daniel, Irudigilea. - 8. arg.. - Donostia : Elkar, 1997. - 63 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 20) .




ISBN 978-84-7917-748-5.

**Laburpena** : Arratsalde baketsu batean, soinu berezi bat entzun zen Zarauzko Santa Barbara mendian, eta geroxeago argi distiratsu itsugarri bat jaitsi zen ortzitik mendi gainera. Horrelaxe heldu ziren martetarrak Euskal Herrira ovni batean. Euskaldun bat eraman nahi zuten Martera.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Haize orratza

Haize orratza [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Odriozola, Andoni, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 1997. - 68 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 23) .




ISBN 978-84-7917-755-3 : 40,00 L.

**Laburpena** : Ipuin ekologikoa da hau. Xabierren etxea bota egin zuten bertan eraikuntza handi bat egiteko. Etxe berri batera joan behar izan zuten bizitzera. Baina han ez zuten enarek habiarik egiten teilatupean, lehengo etxe zaharrean bezala. Horrek ematen zion pena Xabierri. Baina behin haize-orratz txuri-gorri bat aurkitu zuen eta...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Patxibusa




Patxibusa [testu inprimatua] / Ormazabal, Joxantonio, Egilea; Redondo, Daniel, Irudigilea. - 4. arg.. - Donostia : Elkarlanean, 1998. - 62 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 28) .

ISBN 978-84-8331-210-0 : 7,10 €.

**Laburpena** : Ilunabar batean, Goizargiko enparantzan, Patxi izeneko gizon bat azaldu zen bizikletan, atzetik txakur txiki bat zuela. Ez etxe eta ez lan, han zebilen batetik bestera eskale baten pare. Herri hartako neska-mutil batzuek, gizon haren egoeraz errukiturik, Patxiri laguntzea erabaki zuten. Oso pertsonaia bereziak ageri dira liburu honetan: Baxilio, Pintulio, Don Bixente, Makino, Lorelin, Burruntzio...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Maria eta aterkia

Maria eta aterkia [testu inprimatua] / Landa, Mariasun, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - 4. arg.. - Donostia : Elkarlanean, 1998. - 64 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 29) .




ISBN 978-84-8331-053-3.

**Laburpena** : Hiru dira liburu honetako protagonista nagusiak : kirtenik gabeko aterki beltz handi bat, Maria neskatila argia eta Braulio naufrago alai eta jatorra. Maitasunezko eta aldi berean abenturazko istorio polit bat osatu du egileak hiru pertsonaia hauekin.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Muxi eta Puxi

Muxi eta Puxi [testu inprimatua] / Olaizola, Jesus Mari "Txiliku", Egilea; Astrain, Luis, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 1998. - 70 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 31) .




ISBN 978-84-8331-218-6 : 7,25 €.

**Laburpena** : Baziren Muxi eta Puxi izeneko bi muxar jakintsu, eta bazen Kattagorri izeneko urtxintxa gazte bat. Oso ondo konpontzen ziren elkarrekin. Baina heldu zitzaien muxarrei neguko loaldi luzea egiteko garaia, eta zer egin urtxintxarekin ? Bakarrik utzi ?

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ➢ Aitona Blas eta iratxoak

Aitona Blas eta iratxoak [testu inprimatua] / Arrizabalaga, Mikel, Egilea; Erostarbe, Javier, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 1998. - 66 or.; 21 cm. - (Miru; 33) .




ISBN 978-84-8331-351-0.

**Laburpena** : Aitona Blasek asko maite zuen bere biloba Ekhi, eta beste gauza askoren artean, iratxoak non elkartzen ziren erakutsi zion. Horregatik, aitona hil zenean, Ekhi Mairubaratza iturrira joan zen eta iratxoekin hitz egin zuen.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** NA-2189/1998

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Pottoko




Pottoko [testu inprimatua] / Añorga, Pello, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - 5. arg. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 69 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 35) .

ISBN 978-84-8331-527-9.

**Laburpena** : Pottoko potokoa do, eta osa gusturo bizi da baserrian bere behi txuri-beltxekin.

Hasieran, herritarrek iseka egiten zioten Pottokori kalera jaisten zenean, baina orain txalo egiten diote denek. Izan ere, pertsona maitagarria da Pottoko, bere behi eta traktorearekin beti prest dago jendeari laguntzeko. Eto irakurleak ere prest egon behar du liburu hau irakurtzean nahiko barre egiteko.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 8**

## ➢ Miren, Garbine eta sorgin baten komeriak

Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak [testu inprimatua] / Aristi, Pako, Egilea; Lukas, Jesus, Irudigilea. - 3. arg.. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 73 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 37) .




ISBN 978-84-8331-535-4 : 7,25 €.

**Laburpena** : Bi apo txiki dira Miren eta Garbiñe. Behin kamino bat pasatzean, auto batek zapaldu zituen bere gurasoak, eta umezurtz geratu ziren bi apoak. Sorgin batek, ordea, neska bihurtu zituen, baina baldintza batekin : Aitzol izeneko mutiko negarti bati barrea itzultzea. Lortuko ote dute ? Bestela sorginak atzera apo bihurtu eta salda berotara botako ditu.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 10**

## ➢ Pottokoren usainak




Pottokoren usainak [testu inprimatua] / Añorga, Pello, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - 5. arg.. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 80 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 41) .

ISBN 978-84-8331-352-7 : 7,25 €.

**Laburpena** : Pottoko potokoa da, eta baserrian bizi da mendi artean. Baina haur guztiak bezala, Pottokok eskolara joan beharko du kontatzen ikastera, eta berak ez du nahi, eskolako maixtrak belauniko jartzera behartu eta ostikoz jotzen duelako. Baina Pottokok bere lagunen eta baserriko animalien laguntza izango du.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 13**

## ➢ Txepetxa eta sugea

Txepetxa eta sugea [testu inprimatua] / Elexpuru, Juan Martin, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2000. - 67 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 42) .




ISBN 978-84-8331-699-3.

**Laburpena** : Txirrispin txepetxaren historia gazi-gozoa duzue hau. Berak kontatzen digu, gainera. Txirrispin bera, honen umeak, enara zintzo bat eta suge gaizto bat dira protagonistak. Ipuin hau irakurri ondoren, oso garbi geratzen da txepetxa eta sugea ez direla elkarren lagun izateko jaiotakoak. Ikusi bestela zer gertatu zen behin erreka ertz batean...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 13**

## ➢ Pottokoren otsoa

Pottokoren otsoa [testu inprimatua] / Añorga, Pello, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2000. - 70 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 43) .

ISBN 978-84-8331-708-2.

**Laburpena** : Pottoko potokoa da, eta oso gustura bizi da baserrian. Baina oraingo honetan Pottoko estu eta larri ibiliko da. Estu eta larri, inguruan otso bat agertu delako eta ardiak akabatzen hasi delako. Behin, ardiek ihes egin zuten baserritik, eta Pottoko haien atzetik joan zen. Eta mendian norekin topo egingo eta... otsoarekin, noski !

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 14**

## ➢ Marisorgin ospitalean




Marisorgin ospitalean [testu inprimatua] / Blacker, Terence, Egilea; Ross, Tony, Irudigilea; Olano, Antton, Itzultzailea. - Donostia : Elkarlanean, 2001. - 74 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Miru; 46) .

ISBN 978-84-8331-798-3.

**Laburpena** : Marisorgin magia pixka bat behar den lekura joaten da aspiradora baten gainean. Lehen eskola batean egon zen, baina oraingoan ospitale batean ikusiko dugu. Izan ere, Jack izeneko mutiko bati ebakuntza egin behar diote eta beldurrez eta minez dago. Marisorgin izango da Jackentzat sendagile eta erizainik onena.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ● Pirritx eta Porrotx

### ➢ Nerearen argazki albuma




Nerearen argazki albuma [testu inprimatua] / Murua, Mitxel, Egilea; Tokero, Julen, Irudigilea. - Donostia : Elkar ; Katxiporreta, 2006. - 33 or.: kol. ir.; 23 cm. - (Pirritx eta Porrotx; 4) .

ISBN 978-84-978341-4-8 : 7,35 €.

**Laburpena** : Pirritxek eta Porrotxek badute lagun handi bat, argazkizale amorratua dena: Nerea. Zazpi urte bete zituen egunean, meriendatzera gonbidatu zituen Nereak Pirritx eta Porrotx, eta hauek argazki-album bat oparitu zioten, argazkiak txukun-txukun jartzeko.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ● Rita

### ➢ Rita tenislari

Rita tenislari [testu inprimatua] / Valverde, Mikel, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea; Elexpuru, Juan Martin, Itzultzailea. - Donostia : Elkar, 2009. - 64 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Rita; 1) .




ISBN 978-84-978364-5-6 : 8,85 €.

**Laburpena** : Arrakasta, ospea, kirola eta bestelako gaiak jorratzen diren abentura liburu honetan, Rita pertsonaia emango da ezagutzera. Hain zuzen, poliki eta modu atseginez adierazten digu Valverde egileak Rita gaztetxoaren ibilbidea tenisean. Hasieran abeslari ospetsua izan nahiko du, besterik ez. Tenisean sartuz, poliki-poliki motibazioaren garrantziaz eta arrakasta hutsaren arriskuaz jabetuko da. Ilustrazioak eta Valverdernak dira, argiak eta txukunak, pasadizoak osatzen dituztenak.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Rita tenista

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Rita eta hilobi-lapurrak

Rita eta hilobi-lapurrak [testu inprimatua] / Valverde, Mikel, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea; Elexpuru, Juan Martin, Itzultzailea. - Donostia : Elkar, 2009. - 63 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Rita; 3) .




ISBN 978-84-978374-3-9 : 8,85 €.

**Laburpena** : Abenturazko narrakera da honetan Ritaren beste istorio baten berri izango dugu. Izan ere, Ritak Egipton pasatu behar ditu opor egun batzuk bere osaba arkeologoarekin. Osabarekin elkartzera doanean, berak jakin gabe, lapur talde batekin elkartuko da. Horrela, hilobi garrantzitsu bat aurkituko du lapurrekin batera. Lapurrak direla konturatzen denean, ordea, basamortutik zehar ihes egin eta osabarekin elkartuko da.
Koloreetako ilustrazioak nahiko txikiak dira. Marrazkiak sinpleak dira, marra gutxirekin osatutakoak, baina oso adierazkorrak. Egoki osatzen dute testua.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Rita y los ladrones de tumbas

**Ale kopurua : 20**

## ● Xaguxar

### ➢ Atea kox-kox

Atea kox-kox [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Lucas, Jesus, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 1997. - 95 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 82) .




ISBN 978-84-7917-756-0 : 8,45 .

**Laburpena** : Eskolarako bidean, neska-mutiko batzuek elizako atea jo zuten, kox-kox. Eta eskale itxurako agure bizarzuri bat atera zitzaien. Hura ustekabea! Agure hark ipuinez eta poemaz betetako koaderno bat eman zien neska-mutikoei. Hementxe dauzkazu koaderno hartako kontuak: zaldi beltz baten gainean ibiltzen zen Lazedemon pertsonaia beldurgarria, porru eta arrautza ustelekin egindako gerra, Miel Eztin sukaldari xelebrea, oporretara joan nahi zuten abereak... Baina nor ote zen eskale itxurako agure bizardun hura?

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Zure berrien zain

Zure berrien zain [testu inprimatua] / Barrutia, Agurtzane, Egilea; Belmonte, Jose, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 2001. - 63 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 110) .




ISBN 978-84-8331-766-2 : 7,15 .

**Laburpena** : Martin eta Elixabete oso lagunak dira. Eskola berean ibiltzen ziren lehen, elkarrekin jolas egiten zuten, oso ongi pasatzen zuten. Baina Martin beste herri batera oan zen bizitzera. Eta, orain, Martinek eta Elixabetek ezin dute elkar ikusi ; baina eskutitz polit-politak idazten dizkiote elkarri.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Monster, gure maisua




Monster, gure maisua [testu inprimatua] / Dueso, Antton, Egilea; Dueso, Antton, Irudigilea; Elustondo, Miel Anjel, Itzultzailea. - Donostia : Elkar, 2002. - 60 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 117) .

ISBN 978-84-8331-816-4.

**Laburpena** : Zenbat aldiz uzten dugu eginbehar bat bukatu gabe? Zenbat aldiz ikaratzen gara egoera edo pertsona ezezagun baten aurrean? Gauza hauei buruz hitz egiten du liburu honek. Protagonistak, Mikel izeneko mutil batek, irakasle berriaren aurrean sentitzen duen beldurraz. Mikelen gelara, izan ere, maisu berria etorri da. Itxura beldurgarria du: boxeolari sudurra, bekain sarriak, txima luzea, bizar itxia... Horrelako maisu izugarria gelara sartzen ikustean, dardarka hasi da Mikel. Eta are gehiago beldurtu da, maisuak lan-koaderno berria banatu eta ariketa bat egiten hasteko agindu dienean. Mikelek ez baitaki ariketa egiten. Gero, maisua gelatik atera da pixka batean. Eta Mikel han geratu da kaka eginda. Beldurrak akuilatuta, istorio izugarriak imajinatu ditu...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 10 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Margolin

Margolin [testu inprimatua] / Ormazabal, Joxantonio, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - 2. arg.. - Donostia : Elkar, 2008. - 85 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Xaguxar; 162) .




ISBN 978-84-978363-0-2 : 9,70 €.

**Laburpena** : Parisko kaleetan bizi den eskale baten ahotik etorri zaigu Margolin tximeletaren istorioa. Haur batek bere etxeko jardinean harrapatuko du. Baina tximeleta hori oso ausarta da. Horregatik egingo ditu alalegin guztiak askatasuna lortzeko eta berriro lagunekin elkartzeko.

Ikastetxe askotan aurki daitezke Joxantonio Ormazabalen liburuak. Margolin bera ere, haur askoren irakurgaia izan da urteetan. Argitalpen berritu honek gaurko haurrak ere liluratuko dituela ziur gaude.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ✔ EREIN

### ● Auskalo

#### ➢ Egun bat Petre Romanescuren bizitzan

Egun bat Petre Romanescuren bizitzan [testu inprimatua] / Mendiguren Elizegi, Xabier, Egilea; Ortega, Manu, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2009. - 65 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Auskalo; 39) .




XXVII. Lizardi saria 2008. . - ISBN 978-84-974649-4-9 : 8,00 €.

**Laburpena** : Petreri bideo kamera bat erregalatu diote eta bera jakitun da bere etxean nekez egiten dituztela horrelako erregaliak. Guraso biek lana egin arren, Errumaniara dirua bidaltzen dutelako, hangoei laguntzeko. Petrek badaki hori, eta hainbatetan bere eskolako lagunekin bere bizimodua konparatzen duenean, nabarmen gelditzen da bere familiko giroa desberdina dela. Mendira egun-pasa joaten diren egun batean, Petrek andereñoak bidalitako idazlana bere gisara egitea erabakiko du; idazlan bat egin beharrean, kamerarekin kontatuko baitu bere egun bat.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 10**

## ● Igela

### ➢ Erramun eta Mirentxu

Erramun eta Mirentxu [testu inprimatua] / Arratibel, Joxe, Egilea; Elustondo, Miel Anjel, Apailatzaile zientifikoa; Matxinbarrena, Alvaro, Irudigilea. - Donostia : Erein, 1997. - 61 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Igela; 31) .




ISBN 978-84-7568-690-5 : 7,35 €.

**Laburpena** : Behin bizi omen zen familia bat oso behartsua. Aita, ama eta bi seme-alaba. Mutilak Erramun zuen izena eta neskak, berriz, Mirentxu. Garai oso txarrak ziren haiek. Behar hainbat lan ez zegoen guztientzat eta, horrela, familia asko guztia beharrean bizi ziren. Erramunen eta Mirentxuren aitak ez zeukan lan jakinik eta, horrela, egun batez toki batean eta hurrengoan bestean ibili ohi zen. Sasoirik onena ere joaten ari zitzaion eta ez zuen itxaropen handirik berak nahiko zuen bezalako lana aurkitzeko. Hortik sortzen ziren haren haserre asko etxean, emazte eta haurrekin. Emaztea gehienean etxean egon ohi zen. Noizean behin, inguruko auzokoei laguntzen zien, artajorran edo babarruna biltzen, baina lan horiek urriak gertatzen ziren eta irabazi gutxikoak: janari pixka baten ordez, hala esateko.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Matias Ploff-en erabakiak

Matias Ploff-en erabakiak [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - Donostia : Erein, 1996. - 57 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Igela; 32) .




ISBN 978-84-7568-677-6.

**Laburpena** : Astearteak berez ezer berezirik ez badu ere, egun arrunta bada ere, Matias Ploff-ek gorrotatu eta madarikatu egiten du. Zergatik? Egun horretan gimnasia klasea daukalako eta berak, bere hirurogeitaka kilorekin, arnasestuka eta ufaka ibili behar izaten duelako. Gainera, astearte horietako batean gauzak nahasi eta korapilatu egingo zaizkio. Don Romualdok bazkaltzera joan gabe zigortzeaz gain, Aldasorok azterketa bat gogoz kontra lapurtzera behartuko du. Eta Matias Ploff-ek ez daki oso ongi nola jokatu behar duen, zein erabaki hartu behar duen...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ● Igelio Igela

### ➢ Dirua neurtzeko ontzia




Dirua neurtzeko ontzia [testu inprimatua] / Arratibel, Joxe, Egilea; Matxinbarrena, Alvaro, Irudigilea. - 2. arg. zuz.. - Donostia : Erein, 1997. - 85 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Igelio Igela; 1) .

ISBN 978-84-7568-742-1 : 7,75 €.

**Laburpena** : Seme gaztea feriara bidali du ama alargunak, txerria saltzera. Feriara bidean doala txerria harrapatuko diote lapur aztiek. Gazteak ez du etsiko, ordea, eta batera eta bestera jardungo du txerriaren bila. Lapurren txabola ere aurkituko du eta berebiziko makilakadak jasoko ditu orduan lapurren nagusiak: "Txerri beltza jan huen eta pagazak!", gogoan izango du betiko lapurrak... eta irakurleak.

**Edukia** : Txerri beltza

Morroi azkar bat

Lapurren leizea

**Gako-hitzak** : Feria

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Ate debekatua




Ate debekatua [testu inprimatua] / Ezkiaga, Patxi, Egilea; Berzosa, Migel, Irudigilea. - [?. arg.] zuz.. - Donostia : Erein, 1998. - 55 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Igelio Igela; 9) .

ISBN 978-84-7568-752-0 : 6,30 €.

**Laburpena** : Arabiako bazter bat, lehor-lehorra urik ez den tokian baina palmondoz eta belarrez gainezka ura den inguruetan. Eta Hakim izeneko gaztea, aberats eta erraz bizi dena, festa galantak egin eta egin... ondasunen kutxa hustu arte. Eta, orduan, guztia saldu behar: gameluak, ardiak, ahuntzak, zaldiak... Eta bildutako dirua ere gastatu eta merkatura joan behar lan bila. Baina berarengana inor inguratu ez eta Hakim bakarrik plaza hutsean. "Merkatutik kobara aldegitera zihoanean, oin hotsak entzun zituen. Merkatuaren beste aldetik norbait zetorren. Oso astiro zebilen eta gizon zaharra ematen zuen, oso zaharra. Baina tunika aberatsez jantzita zetorren eta haren buruko zapiak zetazkoa zirudien. Jeke zaharren bat izango zela pentsatu zuen Hakimek. Triste eta nekaturik zegoela ematen zuen".

**Gako-hitzak** : Arabia

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Portzelanazko irudiak

Portzelanazko irudiak [testu inprimatua] / Aldai, Iñaki, Egilea; Muro, Gregorio, Irudigilea; Sestelo, Pedro, Irudigilea. - 7. arg. zuz. eta egun.. - Donostia : Erein, 1998. - 81 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Igelio Igela; 11) .




ISBN 978-84-7568-790-2 : 7,75 €.

**Laburpena** : Idoiak, Xabierrek eta Mikelek, Azti txakurrarekin batera, lagun talde ederra osatzen dute. Elkarrekin doaz behin beren hiriko Plaza Nagusira, bertako merkatu txikian Ipurbeltz komikiaren ale atzeratuak aurkitzeko asmoz. Baina portzelanazko irudi polit bat ikusiko dute..., eta inondik ere espero ez zuten abentura bati emango diote hasiera. Irudimenezko jokabideak eta kemen handiko jarrerak eduki beharko dituzte taldekideek sortzen zaizkien misterioak argitzeko, arrisku eta peripezia ugariak gainditzeko.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 14**

## ➢ Elur beltza

Elur beltza [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Donostia : Erein, 1999. - 39 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Igelio Igela; 13) .




ISBN 978-84-7568-812-1 : 6,30 €.

**Laburpena** : Negua da, negu gorria. Eta zerua bat-batean ilundu da. Eta elurra hasi du. Aurrena elur luma gutxi batzuk izan dira, baina gero elur matazak mara-mara jausi dira. Eta paisaia azukrezkoa bihurtu da, eta gaztanberazkoa. Dominika eta Txomintxo leihotik begira daude. Sudurra kristalari itsatsia dute. Harriturik daude halako elurtzaren aurrean, harriturik eta beldurtzen hasirik... Negua da, negu gorria. Eta zerua ilun-ilun dago. Eta elurra hasi du, elur beltza.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Sebas leihotik begira

Sebas leihotik begira [testu inprimatua] / Muguruza, Jabier, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2001. - 60 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Igelio Igela; 27) .




ISBN 978-84-7568-963-0 : 6,75 €.

**Laburpena** : Bakarrik geratu zenean, pauso mantsoak eginez logelara itzuli, leihotik begira jarri, eta bere gurasoez gogoratu zen, bere amaz lehenik, eta aitaz gero. Larriturik bere bila ibiliko zirela otu zitzaion, eta ordurako kezkatuta, oso kezkatuta izango zirela. Gero aitonaz oroitu zen, eta eskolako kideez. Ione neskamea ere etorri zitzaion gogora: a zer sustoa hartuko zuen desagertzeaz jabetzean.[???] Negarrez hasi zen orduan mutiko bakartia, intzirika, eta malko ugari haien artean abandono sentsazioak bihotza zulatzen ziola sentitu zuen". Neskamearekin egunak aspertuta pasatzen ditu Sebasek. Mutilaren bizi-gogoak irudimenezko abenturetan murgiltzen du.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 14**

## ➢ Gaur egun handia da

Gaur egun handia da [testu inprimatua] / Azkue, Imanol, Egilea; Ormazuri, Ander, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2003. - 36 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Igelio Igela; 30) .




ISBN 978-84-974610-9-2 : 5,95 €.

**Laburpena** : "Gaur egun berezia da, saria jaso behar dugulako, eta zer gertatzen den gelan kontatu beharko dut astelehenean, andereño Mertxek asteburuan zer egin dugun galdetutakoan. Bide batez, Julen Alkortak ere entzun dezala, gure aita idazlea dela jakiteko.
Orain, kultur etxera iritsi berriak, hemen gaude zain, areto nagusian, zutik, ekitaldia noiz hasiko, laurok. Aitak eskutik heldu dio amari eta musu eman dio. Izar eta ni bien artean jarri gara, atzetik, hanketatik helduta. Amak begiratu eta irribarre egin dit. Aitak eskua buru gainetik pasatu eta kalparra harrotu egin dit. "Kanpeon" esan dit belarrira".

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

# Iholdi

## Marina




Marina [testu inprimatua] / Landa, Mariasun, Egilea; Balzola, Asun, Irudigilea. - [? arg.]. - Donostia : Erein, 2005. - 44 or.: kol. ir.; 20 x 20 cm. - (Iholdi; 5) .

ISBN 978-84-974625-4-9 : 10,00 ???.

**Laburpena** : "Umezain bat kontratatu dugu haurrak arratsaldetan zain ditzan", esan zion amak lagun bati telefonoz. Horrela jakin nuen norbait etorriko zela Migeltxo nire neba txikia zaintzera eta asko haserretu nintzen. Asko haserretu nintzen neska horri esan ziotelako arratsaldeetan nire bila joan behar zuela eskolara, eta ni neska handia naiz, ez dut horren beharrik.
Horixe da gure neskatoa zirarratu duen istorioa.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

- **Maleta magikoa**

  - **Nire jaioterriko jendea**




Nire jaioterriko jendea [testu inprimatua] / Atxaga, Bernardo, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2005. - 24 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Maleta magikoa; 2) .

ISBN 978-84-974622-6-6 : 4,90 ???.

**Laburpena** : Herriko pertsona batzuek txapela janzten dute burua estaltzeko. Bada ordea adineko gizon bat, Pedro, indiar durbante bat darabilena. Eta hori misterio izugarria da, haur guztiek asmatu nahi dutena.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 8**

## ● Mandolina

### ➢ Asteburu bat tren zaharrean

Asteburu bat tren zaharrean [testu inprimatua] / Muguruza, Jabier, Egilea; Ortega, Manu, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2004. - 34 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mandolina; 2) .




ISBN 978-84-974614-7-4 : 8,90 €.

**Laburpena** : Gure mutila aspertu egiten zen asteburuetan, baina behin tren zahar batera eraman zuen lehengusuak. Hura aldaketa eta poza.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** SS-426/04

**Sortze_data :** 2005/12/05

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Aitorrek bi ama ditu

Aitorrek bi ama ditu [testu inprimatua] / Mendieta, Maria Jose, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2004. - 36 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mandolina; 3) .




ISBN 978-84-974620-8-2 : 8,25 €.

**Laburpena** : Aitorrek bi ama ditu. Gure gizartean gero eta normalagoa den egoera bat kontatzen zaigu: ume batek aita eta ama eduki beharrean, bi ama ditu eta horrek herri txiki batean dakarzkion gorabeherak.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** SS-1246/04

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Basoa sutan

Basoa sutan [testu inprimatua] / Zubeldia, Iñaki, Egilea; Agirre, Marimar, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2008. - 29 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mandolina; 6) .

ISBN 978-84-974641-7-8 : 8,90 €.

**Laburpena** : Hemen jaio nintzen eta hemen bizi izan naiz beti. Nora joango naiz orain ? galdetzen zion katagorriak bere buruari. Lur jota zegoen bere lurra, bere bizilekua, erre ziotelako.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Lege gordailua :** SS-478/08




**Ale kopurua : 17**

## ➢ Chuck Aranberri dentista baten etxean




Chuck Aranberri dentista baten etxean [testu inprimatua] / Atxaga, Bernardo, Egilea; Egillor, Juan Carlos, Irudigilea. - [2. arg.]. - Donostia : Erein, 2008. - 61 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mandolina; 9) .

ISBN 978-84-974642-9-1 : 8,90 €.

**Laburpena** : Dentistaren etxeari gauza asko fa-fa-falta zitzaion tiburoiez betetako piszina bat izateko. Chuck Aranberri eta bere amaren aurrean eseritako emakume potola-oso-potolaren iritzirako, ordea, bi lekuak -kuak! kuak !- erabat berdinak ziren : igual-igualak. Kontsultako panoramak ez zion graziarik egiten emakume potolari : bere eskuinera eseritako gizon flakostak automobilismoari buruzko aldizkaria irakurtzen segitzen zuen ; laranja koloreko sofan erdi etzanda zegoen gazte atletiko eta bibotedunak zu-zuzurrungaka ; Chuck Aranberri eta bere amak, berriz, elkarri kontu ttikiak esanez.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ● Matriuska

### ➢ Furia

Furia [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Odriozola, Elena, Egilea. - Donostia : Erein, 2007. - 61. or.: kol. ir.; 21 cm. - (Matriuska; 3) .




ISBN 978-84-974636-8-3 : 6,90.

**Laburpena** : Karlosen aita jockey-a da, hau da, zalduna, eta Grand National lasterketan parte hartzekoa da. Ama etxean dago, semearekin oso arduratuta: hara non jakin duen mutikoaren lagunik handiena telebista dela eta etengabe ikusi nahi duela... Baina, halako batean, argia joan da eta badirudi dena amaitu dela, batez ere telebistarik ez dagoelako! Eskerrak Karlosek ustekabe bat jasoko duen, eta akaso...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 21**

## ➢ Ricardo eskultorea




Rikardo eskultorea [testu inprimatua] / Rodari, Gianni, Egilea; Tobella, Montse, Irudigilea; Rosetta testu zerbitzuak, Itzultzailea. - Donostia : Erein, 2008. - 60 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Matriuska; 6) .

ISBN 978-84-974648-0-2 : 6,75 €.

**Laburpena** : Rikardo oso eskultore ona da. Marmolezko eskulturak egiten ditu, egurrezkoak eta buztinezkoak, ahuntzak, suhiltzaileak, zaldiak eta pertsonak irudikatzen dituztenak. Bukatzen dituenean, obra guztiek bizitza hartzen dute eta mundua ikustera abiatzen dira. Noizean behin, bisitalditxo bat egiten diote Rikardori beren abenturak kontzatzeko.

**Indexazio hamartarra** : 850 (Italierazko literatura)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Lo scultore Riccardo

**Ale kopurua : 17**

## ● Siberia treneko ipuinak

### ➢ Asto bat hypodromian

Asto bat hypodromoan [testu inprimatua] / Atxaga, Bernardo, Egilea; Zabaleta, Jon, Irudigilea. - 4. arg. zuz.. - Donostia : Erein, 1998. - 42 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Siberia treneko ipuinak; 3) .




ISBN 978-84-7568-810-7 : 7,20 €.

**Laburpena** : Boris Atxagof-ek kontatzen duen ipuina Lasartevich, belar berde-berdeko hipodromoa zuen herria. Udako beroak heldu orduko zaldiz beteriko tren dotore-dotorea iristen zen herrira. Zaldi txuri, gorri eta beltzak ekarri ohi zituen eta, haiekin batera, zaldi gaineko jokeiak. Ondoren, berriz, morroiak heltzen ziren azken. Inork ez zuen uste morroiak inportante zirenik. Baina, behin, Lasartevich-eko bizimodua aldatu zuen morroi inportantea heldu zen: Maurizio, astoa. Gainerako astoak bezalakoa baina gainerako astoak ez bezala janzten zena: sonbreilua buruan, korbata horia lepoan eta betaurrekoak. Bi maleta handi harturik bidaiatzen zuen astoa.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 17**

## ➢ Usoa, hegan etorritako neskatoa

Usoa, hegan etorritako neskatoa [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Balzola, Asun, Irudigilea. - Donostia : Erein, 1999. - 32 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Siberia treneko ipuinak; 9) .




ISBN 978-84-7568-822-0.

**Laburpena** : Kukua, Afriaktik etortzen den hegazti migratzaile baten izena da.
Kasai, Afrikatik etorri zen neskatila maitagarri baten izena da.
Kukuaren antzera, Kasai hegan etorri zen. Afrikatik hegazkin batean bidali zuten.
Horrexegatik hemen denek Usoa esaten diote, hegan etorriko neskatoa.
Eta aurtengo udaberrian ere kukua Afrikatik etorri da: ku-ku, ku-ku ! Txanpoank sakeletan, haur guztiak pozaren pozez dabiltza. Baina Usoa serio jarri da, eta urduri, eta kopetilun...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Amona zure Iholdi




Amona, zure Iholdi [testu inprimatua] / Landa, Mariasun, Egilea; Balzola, Asun, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2000. - 23 or.: kol. ir.; 21 cm. - (Siberia treneko ipuinak; 13) .

ISBN 978-84-7568-911-1.

**Laburpena** : Martinek linterna bat atera zuen bere motxilatik, eta nik galdetu nion zertarako zen eta berak ez zidan ezer ere erantzun, eta urduri nengoen, ez nekien zergatik... Eta, bat-batean, jira egiteko eta begiak zabaltzeko agindu zidan.

-Alto! Geldi hor!

Orduan, amona, Martinek pistola batekin apuntatzen ninduela ikusi nuen, edo hobeto esanda, hasieran linternaren argiak itsutu egin ninduen, eta gero beste eskuan pistola bat zuela ikusi nuen. Eta gero, pum! pum! pum! oihu egin zidan, eta gero, ja! ja! ja!..., barre-algaraka hasi, eta benetako pistola bat zen, hori da okerrena, jostailu bat ez zela, horretaz berehala konturatu nintzen. Geroxeago, hartzeko pistola lasai, eskaini zidan berak, eta nik hasieran ezetz, handik alde egin nahi nuela, baina, azkenean, jakin-minez edo, neuk ere pistola hura nire eskuetan hartu nuen. Dexente pisatzen zuen, eta beltz-beltza zen, ikaragarria.

-Zer iruditzen zain? Ez al dun guai?"

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 12**

## ✔ GERO

### ● Ekilore

#### ➢ Sagarraren zetarra

Sagarraren zetarra [testu inprimatua] / Isasi, Angel, Egilea; Solano, Aurora, Irudigilea; Ituarte, Mari Eli, Itzultzailea. - Bilbo : Gero-Mensajero, 1999. - 68 or.: kol. ir.; 22 cm. - (Ekilore; 12) .




ISBN 978-84-271-2279-6 : 7,25 €.

**Laburpena** : Bazen behin herritxo bat. Herri txiki eta gordea. Herri hartan, baserri guztiak bata bestearen albo-alboan zeuden. Guztiak, bi izan ezik. Bata, haranaren mutur batean zegoen. Bestea, beste muturrean. Baserri horietan Manex eta Maddi bizi ziren, zure adineko bi umetxo ausart eta alai. Behin, Maddiren baserrian sagar baten barrutik ateratzen den zarata arraroa entzuten dute... Zer ote da? Sator satorlurtarrak lagun dituztela argituko dute misterioa gure laguntxo biek.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 9**

## ➢ Fila

Fila [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Hernandez, Ander, Irudigilea. - Bilbo : Gero-Mensajero, 2001. - 46 or.: z.-b. ir.; 22 cm. - (Ekilore; 20) .




ISBN 978-84-271-2382-3 : 6,50 €.

**Laburpena** : Bakarrik bizi den bihankatar edo gizaki baten etxeko ganbaran jaio nintzen beste hiru seniderekin batera. Nagusia egunero atzetik genuen eskoba kirtenarekin kinkiti-hanka.
Jaio eta bederatzi egunez egon ohi gara miautarrok edo katuoak begiak ireki gabe, baina guk usu arraio ikasi genuen, ilunpetan ere, batetik bestera habaila ederrean mugitzen. Ohartzerako bakar-bakarrik gelditu nintzen kale gorrian, ez ama eta ez senide.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Mugaz haraindiko itsasoak




Mugaz haraindiko itsasoak [testu inprimatua] / Salaberria, Garbiñe, Egilea; Lucas, Belen, Irudigilea. - Bilbo : Gero-Mensajero, 2001. - 85 or.: z.-b. ir.; 22 cm. - (Ekilore; 25) .

ISBN 978-84-271-2418-9 : 7,80 €.

**Laburpena** : Mugaz haraindiko itsasoak liburuak bi istorio txundigarri ezkutatzen ditu bere baitan : Tintas jauna batetik, zeinetan protagonistak bereak eta bi pasatu beharko dituen olatuek Marea Erreinuko biztanleei erasotzearen arrazoiak aurkitze aldera. Bestetik Perroquet-en urperatzea kontakizuna dugu. Kontakizun honetan, uren indarrak bultzatuta eta itsasontzia nora ezean abiatu ondoren, marinelak toki mistoriotsu batera iritsiko dira : Inork Nola Alegatu Ez Dakien Herrialdera. Arriskuak, abentura, misterioa... horiek guztiak eta gehiago aurkituko dituzu mugaz haraindiko gure itsasoan murgiltzen bazara.

**Edukia** : Tintas jauna

"Perroquet"en urperatzea

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

# ✔ GILTZA

## ● Tukan

### ➢ Andretxo bizardunaren uhartea

Andretxo bizardunaren uhartea (Kaset batean grabaturiko istorioa) [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Valverde, Mikel, Irudigilea. - Bartzelona : Giltza, 1997. - 88 or.: kol. ir.; 17 cm. - (Tukan; 18) .

ISBN 978-84-8118-506-5.

**Laburpena** : Egoera larrian nago, ozeanoaren erdian galduta. Gertatu zaidan guztia kaset batean grabatzea erabaki dut. Dena hasi zen udako arratsalde bero batean...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa** : Haur literatura

**Publikoa** : 8 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 15**

## ➢ Bota ura

Bota ura ! (Nire terrazatik) [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Lucas, Belen, Irudigilea. - Bartzelona : Giltza, 1997. - 96 or.: kol. ir.; 17 cm. - (Tukan; 19) .




ISBN 978-84-8118-557-7.

**Laburpena** : Eguraldi ona dagoenean, etxeko terrazan egoten naiz irakurtzen, marrazkiak egiten eta ipuin laburtxoak idazten. Terrazatik, mundu guztiari begiratu eta oso ondo pasatzen dut, ni ez naute ia inoiz ikusten eta.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Nire auzoko bat sorgina da

Nire auzoko bat sorgina da [testu inprimatua] / Bordons, Paloma, Egilea; Bordons, Paloma, Irudigilea; Larrakoetxea Beobide, Joseba, Itzultzailea. - Bartzelona : Giltza, 1999. - 38 or.: kol. ir.; 17 cm. - (Tukan; 29) .




ISBN 978-84-8118-568-3 : 6,95 €.

**Laburpena** : Gaur iritsi da atikoko auzokide berria. Nahikoa izan zait begirada arina botatzea jakiteko. Sorgina da! Bai, sorgina. Nahi duzuna jokatuko dugu.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Mi vecina es una bruja

**Lege gordailua :** B-11333/99

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Sagutxo ameslaria

Sagutxo ameslaria [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Cañas, Alicia, Irudigilea. - Bartzelona : Giltza, 2000. - 108 or.: kol. ir.; 17 cm. - (Tukan; 33) .




ISBN 978-84-8118-567-6.

**Laburpena** : Sagutxo bat naiz, sagutxo ameslaria.

Marizeru deitzen didate. Zerura begira egotea gustatzen zait. Ipuinak kontatzea ere atsegin dut. Eta norbaitek niri ipuinak kontatzea ere bai. Horixe.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Franti

Franti [testu inprimatua] / Linazasoro, Karlos, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Bartzelona : Giltza, 2002. - 67 or.: kol. ir.; 17 cm. - (Tukan; 37) .




ISBN 978-84-8118-712-0.

**Laburpena** : Franti gizontxo bitxi eta oso eskuzabala zen. Eta beti umore oneko zegoen.

Franti gustura joaten zen lanera, oso langilea zelako, Matteomigliako funtzionariorik onena. Frantik, adinean sartuta egon arren, ez zuen erretiratu nahi. Franti, ilusiko duzunez pertsona xelebre-xelebrea da.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Ama !




Ama ! [testu inprimatua] / Zubeldia, Iñaki, Egilea; Gubianas, Valenti, Irudigilea. - Bilbo : Giltza, 2006. - 69 or.: kol. ir.; 20,00 cm. - (Tukan 6+; 11) .

ISBN 978-84-8118-818-9 : 7,60 €.

**Laburpena** : Beatrizek zortzi urte ditu. Neba bat dauka: Alex. Beatriz askotan gogoratzen da amarekin, duela bi urte hil baitzen. Dena den, orain ez da hain triste eta goibel egoten, jakin badakielako izar eder bat dagoela zeruan familiari argi egiten.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Sudurretik txintxilika

Sudurretik txintxilika [testu inprimatua] / Igerabide, Juan Kruz, Egilea; Adell, Montse, Irudigilea. - Bilbo : Giltza, 2007. - 113 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Tukan 8+; 13) .




ISBN 978-84-8118-929-2 : 7,25 €.

**Laburpena** : Musika, niretzat, kristalezko pilota beten antzekoa da; barruan, mundu bat dago, Aitak uste du musikaria jaioa naizela. Horregatik esan zion eskolako zuzendariari bandoneoi kontzertu bat eman nezakeela ; bandoneoia trikiti moduko bat da. Zuzendariari ezin hobeto iruditu zitzaion, harrezkero, kirioak airean nabil.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Sortze_data :** 2008/08/18

**Ale kopurua : 20**

# ✓ IBAIZABAL

## ● Matxinsalto

### ➢ Zurinek beltza izan nahi du

Zuriñek beltza izan nahi du [testu inprimatua] / Calleja, Seve, Egilea; Barkate, Nadia, Irudigilea; Zubeldia, Iñaki, Itzultzailea. - Zornotza : Ibaizabal, 2002. - 55 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Matxinsalto; 20) .




ISBN 978-84-8325-648-0.

**Laburpena** : Denok dugu gurariren bat. Zuriñek beltza izan nahi du, bere auzunera etorri berri den neskatila hori bezain beltza. Sika du izena, eta hain polita da bere txirikorda eta begi handi horiekin... Agian bere ikasgelara etorriko da. Horregatik bera eta bere familia ezagutu nahi ditu, bere laguna izan nahi luke eta bere ametsak hari kontatu.

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Azkeneko txantxana




Azkeneko txantxana [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Garmendia, Iñaki, Irudigilea. - Zornotza : Ibaizabal, 2004. - 53 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Matxinsalto; 29) .

ISBN 978-84-8325-816-3 : 10,00 €.

**Laburpena** : Mundua zeruko hegazki ttikiek gobernatzen zuten garaikoa duzue historia hau. Aspaldikoa. Oso aspaldikoa. Aspaldi-aspaldikoa. Udazkenik eta udararik ez zen garaikoa. Soilik udaberria eta negua zirenekoa. Zozoten, Okilegin, Enaratokin, Txolarzelaian, Arranogainen, Txepetxatxokon, Usategietan, Kukumendin... Bazter guztietan jaun eta jabe ziren lumadun hegalari zerutiarrak.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 13**

## ➢ Tximu bat klinikan

Tximu bat klinikan [testu inprimatua] / Zubeldia, Iñaki, Egilea; Zubimendi, Alai, Irudigilea. - [2. arg.]. - Zornotza : Ibaizabal, 2006. - 79 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Matxinsalto; 33) .

Hiztegia : 71. or. . - ISBN 978-84-8325-960-3 : 8,90 €.

**Laburpena** : Kiki tximua bizi den zirkuak sua hartu du eta Kiki ihesi joan da. Ustekabean klinika batera heldu eta gela batean ezkutatu da; hain zuzen, Enekoren eta Kaxianoren gelan. Bertatik ezagutu eta biziko ditu klinika bateko gorabeherak, gertu-gertutik.Umorezko ukituek arindu egiten dituzte berezko egoera gogorrak.

**Gako-hitzak** : Ziminoak

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 15**

## ➢ Ttantto

Ttantto [testu inprimatua] / Kazabon, Antton, Egilea; Odriozola, Andoni, Irudigilea. - [2. arg.]. - Zornotza : Ibaizabal, 2007. - 63 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Matxinsalto; 35) .

Hiztegia : 55. or. . - ISBN 978-84-8325-996-2 : 9,20 €.

**Laburpena** : Ttantto pilota bat da, eskuz jokatzeko pilota. Gozoetan bizi da eta bertako pilotalekuan igarotzen ditu ordu gehienak. Pilota partidu asko daramatza bizkarrean, eta zahartzen ere ari da gizarajoa. Hala ere, oraindik oso ongi moldatzen da.

Baina bat-batean, zerbaiten beldur da Ttantto eta, oso triste jarri da. Zergatik ote? Dena dela, zuregana dator laguntza eske. Lagunduko al diozu? Horrela bada, egin ezazu eskatzen dizuna, eta salbatuko duzu.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera




**Ale kopurua : 20**

## ➢ Printzesa politaren sekretua

Printzesa politaren sekretua [testu inprimatua] / Arana, Aitor, Egilea; Alonso, Aitziber, Irudigilea. - Zornotza : Ibaizabal, 2007. - 85 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Matxinsalto; 36) .



Hiztegia : 75. or. . - ISBN 978-84-8325-997-9 : 9,20 €.

**Laburpena** : Oraindik ere badaude gaztelu handietan bizi diren printzesak. Liburu honetan horietako bat ezagutu eta bere gaztelua bisitatzeko aukera izango dugu. Baina dena ez da izango printzesen ipuinetan agertzen den bezain polita eta xarmagarria: gure printzesa politak sekretu bat dauka. Sar zaitez gazteluan eta bizi gurekin abentura polit bat !

**Edukia** : Interneteko mezuak

Metroko eskalea

Printzesaren gazteluan

Elurra eta izotza

Printzesa polita ez da hain polita

Sekretuak argitzen

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

## ➢ Euskaldun bat Marten

Euskaldun bat Marten [testu inprimatua] / Zubeldia, Iñaki, Egilea; Mendiola, Inma, Irudigilea. - [2. arg.]. - Zornotza : Ibaizabal, 2007. - 79 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Matxinsalto; 37) .




Hiztegia : 69. or. . - ISBN 978-84-8394-080-8 : 9,20 €.

**Laburpena** : Arratsalde baketsu batean, soinu berezi bat entzun zen Zarauzko Santa Barbara mendian, eta geroxeago argi distiratsu itsugarri bat jaitsi zen ortzitik mendi gainera. Horrelaxe heldu ziren martetarrak Euskal Herrira ovni batean. Euskaldun bat eraman nahi zuten Martera.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 10**

## ● Paper txoriak sail gorria

### ➢ Sararen basoa

Sararen basoa [testu inprimatua] / Urberuaga, Emilio, Egilea; Urberuaga, Emilio, Irudigilea; Umerez, Nekane, Itzultzailea. - Euba : Ibaizabal, 2002. - 31 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Paper txoriak. Sail gorria; 1) .




ISBN 978-84-8325-656-5.

**Laburpena** : Sara basoan bizi da, baina bertako animaliak ez daude gustura daukaten itxurarekin. Haginen ordez mokoa nahi dute, edo lepaluzeen lepoa... Ametsetan Sarak erabat perfektua den animalia sortuko duen arren, berehala konturatuko da ez dela hori animaliek nahi dutena.

**Generoa** : Haur literatura

**Publikoa** : 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ➢ Ez esan inori

Ez esan inori [testu inprimatua] / Lartitegui, Ana G., Egilea; Lartitegui, Ana G., Irudigilea; Umerez, Nekane, Itzultzailea. - Euba : Ibaizabal, 2003. - 52 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Paper txoriak. Sail gorria; 3) .




ISBN 978-84-8325-733-3 : 8,90 €.

**Laburpena** : Koldok, Patrikaxek, parkean bitxiak iruditzen zaizkion harri batzuk aurkitzen ditu. Neskato batek, ordea, trukatu egiten dizkio, inori kontatu behar ez dion sekretu baten ordainean. Baina sekretua ahoz aho joaten da, edo belarriz belarri: Mikelek Pellori kontatzen dio, Marimaestrak Txomini??? eta azkenean, denen artean, dena hankaz gora uzten dute.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Nora laugarren errege Magoa

Nora eta laugarren Errege Magoa [testu inprimatua] / Gomez, Alfredo, Egilea; Lopez Dominguez, Xan, Irudigilea; Otaegi, Edurne, Itzultzailea. - Euba : Ibaizabal, 2003. - 71 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Paper txoriak. Sail gorria; 4) .




ISBN 978-84-8325-734-0 : 9,25 .

**Laburpena** : Joan den urtean, Norak bost jostailu eskatu zizkien Errege Magoei, baina hiru baino ez zizkioten ekarri. Aurten, horren arrazoia galdetzeko esna geratuko da neskatila. Baina Errege Magoak etorri eta eskatutako guztia utziko diote. Aho zabalik geratuko da, ordea, etxeko balkoitik laugarren Errege Mago bat sartzen ikustean...

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 4 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ➢ Nor naiz ni ?




Nor naiz ni ? [testu inprimatua] / Rodari, Gianni, Egilea; Zubeldia, Iñaki, Itzultzailea; Tanco, Miguel, Irudigilea. - Euba : Ibaizabal, 2006. - 38 or.: kol. ir.; 20,00 cm. - (Paper txoriak, sail gorria; 8) .

ISBN 978-84-8325-959-7 : 8,40 €.

**Laburpena** : Totok bera nor den jakin nahi du. Arazo zaila, pertsona bakoitzak modu diferentez deitzen beitio. Gaur zalantzak argituta utzi nahi ditu. Izan al daiteke aldi berean semea, haurra eta neba ? Egun oso bat jendeari galdezka pasatu ondoren, Totok badaki erantzuna.

**Indexazio hamartarra** : 850 (Italierazko literatura)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Jatorrizko izenburua :** Chi sono io ?

**Ale kopurua : 15**

## ● Paper txoriak sail urdina

### ➢ Xia Tenzinen bidaia miresgaria




Xia Tenzinen bidaia miresgarria [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Muñiz, Jacobo, Irudigilea. - Amorebieta-Etxano : Ibaizabal, 2009. - 91 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Paper txoriak, sail urdina; 14) .

ISBN 978-84-8394-338-0 : 10,30 €.

**Laburpena** : Abenturazko kontakizun honetan, izenburuak bildu bezala, Xia Tenzinen bidaia kontatzen da. Xia Tenzin, 2,40m.ko mutil erraldoia da eta Tibeteko mendietan bizi da. Bere aitaren ametsa itsasoa ikustea zen, abiatu zen itsasorantz baina ez zen itzuli. Xia Tenzinek bere egiten duen ametsa betetzeko asmoz, eta bide batez, aita topatzeko helburuarekin, bidaia egingo du Tibetetik Txina zeharkatuz Itsaso horiraino. Abenturaz betetako bidaia izango da Ilustrazio gutxi batzuk daude, zuri-beltzean. Gehienak lehen planokoak dira.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 10 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**

# ✔ PAMIELA

## ● Haur literatura

### ➢ Pantaleon badoa

Pantaleon badoa [testu inprimatua] / Zubizarreta, Patxi, Egilea; Mitxelena, Jokin, Irudigilea. - Iruñea : Pamiela, 2005. - 91 or.: kol. ir.; 22 cm. - (Haur literatura; 5) .




ISBN 978-84-7681-466-6 : 11,60 €.

**Laburpena** : Pantaleon elurrezko panpina bat da. Hotzaz eta paisaia zuriaz asperturik, basamortura joatea erabaki du, beroa eta koloreak ezagutzera. Eta arraunean joan behar izan du, eta oinez, eta bizikletaz. Natasha hartz zuri bat da, eta ezkutuka joan zaio atzetik, eta basamortura iristen lagundu dio. Baina, ai, oi, ei!, Pantaleon urtzen hasi da, eta Natasha itotzen...

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 6 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 13**

## ➢ Anekdotak

Anekdotak [testu inprimatua] / Ruiz, Ruben, Egilea; Eibar, Eider, Irudigilea. - Iruñea : Pamiela, 2008. - 61 or.: kol. ir.; 22 cm. - (Haur literatura; 11) .




ISBN 978-84-7681-553-3 : 9,50 €.

**Laburpena** : Ane zortzi urteko neska bat da.

Atzo, hitz berri bat entzun zion atso zahar bati Anek: anekdota. Aneri asko gustatu zitzaion entzundako hitza, akaso, esaten den aldiro bere izena esaten delako. Gaur, jakin du zer esan nahi duen hitz horrek. Eta jakin du hitz hori erabili beharrean pasadizo esan dezakeela. Baina Anek anekdota esatea nahiago du. Eta erabaki du berari gertatutakoak idatzi egingo dituela.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 16**

## ● Tamaina ttikia

### ➢ Sorginkerien liburua




Sorginkerien liburua : edo Katalin Kattalin-xorgin bilakatu zenekoa [testu inprimatua] / Epaltza, Aingeru, Egilea; Urmeneta, Asisko, Irudigilea. - Iruñea : Pamiela, 1998. - 88 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Tamaina ttikia; 34) .

ISBN 978-84-7681-286-0 : 6,60 .

**Laburpena** : Katalin Aste Santuko oporrak pasatzen ari da bere familiarekin. Non eta «joanabeltzenean», mendi artean dagoen baserri zahar-zahar batean. Aita-amak pozik daude toki horretan, baita anaia gazteagoa ere. Aldiz, Katalinek bere oporretarako amesten zuen tokiarekin ikusteko gutxi du mendizulo horrek. Aspertzera etsia, hirurehun urte lehenagoko istorio batek eta liburu baten agerpenak uste ez bezelako oporrak ekarriko dizkiote.

**Edukia** : Joanabeltzenean

Sorgingaiak

Pala gainean hegan

**Gako-hitzak** : Sorginak

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 10 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

# ✓SM

## ● Baporea sail laranja

### ➢ Marlene eta taxizapata




Marlene eta taxizapata [testu inprimatua] / Landa, Mariasun, Egilea; Odriozola, Elena, Irudigilea. - Arrigorriaga : SM, 2002. - 77 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Baporea, sail laranja; 18) .

ISBN 978-84-348-8627-8.

**Laburpena** : Marlene abeslari famatua izandako katemea da eta mundua ezagutzen jarraitu nahi du. Z'Apa Tapatapa taxizapata ezagutu eta gau batean sekulako abenturak ezagutuko dituzte elkarrekin. Hori guztia Kale Izengabe batean gertatzen da, eta ilargia izango dute lekuko bakarra.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Dindirri




Dindirri [testu inprimatua] / Lertxundi, Anjel, Egilea; Odriozola, Elena, Irudigilea. - Arrigorriaga : SM, 2003. - 63 or.: kol. ir.; 19 cm. - (Baporea, sail urdina; 15) .

ISBN 978-84-348-9413-6.

**Laburpena** : Dindirri poz-pozik bizi da, eta munduan gehien gustatzen zaiona eguzkia hartzea da. Baina goiz batean, brastakoan, mundua iluntzen zaio dindirriri ; eguzkirik gabe gelditzen da; ordu arte zuen poz guztia ahitzen zaio. Eta, batez ere, Dindirrik askatasuna galtzen du.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ✔ TTARTTALO

### ● Betiko klasikoak

#### ➢ Altxor uhartea

Altxor Uhartea [testu inprimatua] / Stevenson, Robert Louis, Egilea; Todo, Lluis Maria, Moldatzailea; Andrada, Javier, Irudigilea; Elizegi, Patxi, Itzultzailea. - Donostia : Ttarttalo, 2008. - 40 or.: kol. ir.; 22 x 22 cm. - (Betiko klasikoak; 1) .




ISBN 978-84-984308-2-0 : 10,25 €.

**Laburpena** : Itsaslapurren nobelarik ezagunena eta biribilena duzu hau, irudi ederrez hornitua eta lehen irakurleentzat moldatua, literatura unibertsaleko lan handi bat hizkuntza errazean emateko.

**Gako-hitzak** : Itsaslapurrak

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 17**

## ✔ TXALAPARTA

### ● Axuri beltza

#### ➢ Astigar basoa




Astigar basoa [testu inprimatua] / Zabalza, Endika, Egilea; Elizetxe, Federiko, Irudigilea. - Tafalla : Txalaparta, 2004. - 65 or.: z. b. ir.; 19 cm. - (Axuri beltza; 33) .

ISBN 978-84-8136-366-1 : 10,00 €.

**Laburpena** : Nafarroako Baldorba bailaran gertatzen den bi lagunen arteko istorioa honek agian zure inguruan gertatzen diren gauzak beste modu batera ikusaraziko dizkizu.

Basoan etxola txiki bat dute Amaiak eta Enekok. Egun batean, ezustean, bola batekin egingo dute topo, hiruki gorri bat duen bola urdin eder bat. Gertakizun honek Amaia eta Enekoren bizitza eta ingurukoena hankaz gora jarriko du, eta zergatik ez, seguru aski zurea ere bai.

Elkar ulertzeaz eta errespetuaz mintzo den liburua, 9 urtetik aurrerakoentzat.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 15**

## ➢ Elurra ezin da erosi

Elurra ezin da erosi [testu inprimatua] / Berasaluze, Garikoitz, Egilea; Gallego, Patxi, Irudigilea. - Tafalla : Txalaparta, 2007. - 62 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Axuri beltza; 37) .




ISBN 978-84-8136-504-7 : 11,00 €.

**Laburpena** : Postaletan ezin ederragoa agertzen den herri horietakoa da Kaiomendi. Azken urteotan, ordea, zuhaitzak moztu eta kablez bete dituzte mendiak, burdinazko dorre handiekin batera, elurrarekin iristen diren eskiatzaileak ibil daitezen. Moilan, berriz, aisialdirako belaontzi zuriak nabarmentzen dira kirol portua eraiki dutenetik, eta parkeak eta zelaiak zeuden lekuan etxe garestiak ikusten dira orain. Haurrek ez dute kalean jolasteko lekurik, auzokideak ez dira joaten Rafael zaharraren okindegira inguruan beste bi zabaldu dituztenetik, eta olatuen artean bodyboard berriekin ibiltzen direnek iseka egiten diete egurrezko txanperoak dituzten lagunei.

Baina dirua ez da dena. Elurra ezin da erosi, esaterako. Eremu handiko saltokietan ere ez dute saltzen...

Patxi Gallego marrazkiak egin ditu.

**Indexazio hamartarra** : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)

**Generoa :** Haur literatura

**Publikoa :** 8 urtetik aurrera

**Ale kopurua : 20**